

ERAGILE FAKTIKOAK

Gaur hamabost deitu zuten grebarekin erakustaldi ederra egin zuten sindikatu abertzaleek. Hitzetatik haratago, Espainiako gobernuari demokratikoki nazio gisa aurre egiteko apustu zaila egin zuten. ELA eta LABek bidea erakutsi digute berriro. Eta askok, gehienok, erantzun diegu baietz, hortik jarraitzeko prest gaudela.

Greba egunean bertan, baina baita bezperan eta ondorengo egunetan ere, bereziki adi egon naiz gure herriko bi «gizarte eragile» garrantzitsuk zer esaten ote zuten. Eragina badute, bai, elizak eta patronalak — tira, eragina baino gehiago boterea esaten zitzaion horri lehen eta, gehiegizkoa edo demokratikoki zegokiena baino gehiago zutelakoan edo, «botere faktiko» bata nahiz besteari.

Enpresarioei ezin genien grebarako adostasunik eskatu, jakina, baina aukera ona zuten CONFEBASKek, ADEGIk, SEAk eta gainerakoek lan harremanetarako euskal esparruaz duten iritzia plazaratzeko. Lehen ere entzun diegu marko juridiko-politikoaz, demokraten batasunaz edo Sahararako bidaiei buruzko iritzirik, inork eskatu gabe. Lan harremanetarako euskal esparruaz, ordea, ezta txintik ere. Oso gustura daude, sobrare, espainiar esparruarekin. Bizkaiko goi burgesiaren espainiarzaletasuna aspaldikoa dela esango didazue. Baina zer gertatzen da Gipuzkoako burgesia ertain eta txikiarekin. Hauek ere ez daude, herriarekin bat, euskal esparru berrira abiatzeko prest?

Elizari ere ez diot grebari buruzko ezer entzun. Baina honek ez nau kezkatzen. Jakin-min hutsa da. Esango al dit inork elizan grebarik egin ote zuten? Elizan sindikaturik badagoen? Ala debekatuta dauden, Espainiako Guardia Zibilean bezala? Edo zentzurik gabekoak diren, kooperatibetan bezala? Eta gutxieneko zerbitzuak, izatekotan, zeintzuk lirakeken? Hiletak eta urgentziazko aitortpenak, akaso? (Bekatu en aitortpenez ari naiz, noski; aitortpen fiskalak ez dira-eta elizaren gustukoak, BBVn eta Jersey ondo dakiten bezala).

Tira, badirudi gure arteko «eragile faktiko» nagusiak ez daudela gurekin baina, Elorrietak ongi esan zuen bezala, gu bagoaz.